

Esandakoak esanda

Esaerak, esamoldeak, espresioak, lokuzioak... Desberdinak izanda, askatasun osoz ekarri ditugu gure aldizkariko orriotara. Ia sei urtez argitaratu dugun txokoaren batzailea Higinia Solozabal izan da.

Esaera: balioztapen bat, printzipio moral bat edo herri-jakinduriari zor zaion ezagutza bat laburbiltzen duen eta maiz erabiltzen den esaldia da. Esamoldea: esapidea, espresioa edo lokuzioa.

Linguistika kontzeptuetan sartu barik, esamoldeok batzeko Higinia irizpidea oso apala izan da beti: zer edo zergatik esanguratsuak egiten zaizkion esaldiak biltzen joatea. Orain 25 bat urte hasi zen. Bere ama Maria oso errefrau zalea zen eta hura hil ostean konturatu zen zenbat bider esaten zuten: "Gure amak esate

eban lez...". Hari entzundakoak idazten hasi zen, seme-alabei erakusteko gero. Eskura zuen edozein papere-tan idazten zituen eta karpeta baten sartu gero. Mota eta tamaina guztietako paper txatalak gordetzen ditu karpeta urdin horrek, kasu askotan originalak. Harrezkeroztik bere poltsan ez dira falta apuntatzeko blok bat eta boligrafoa eta doan lekura doala, adi egoten da norbaitek esaten duena bertan momentuan jasotzeko.

Espresiook iturri askotatik hartutakoak dira: lagun artean, dendan zein telebistan entzunda, liburu edo aldizkariaren baten irakurritak.



Batzuk pertsona xelebreak botatakoak diren bezala, asko eta asko kaleko jendearen ahotik jasotakoak dira. Horrela irakurri daiteke San Agustin filosofoaren pentsamendu baten ondoan, Goenkaleko Maria Luisaren purrustada bat. Sarritan hitzurenaren euskalkia eta espresi-

bitatea errespetatu dugu, Higinia horrela idatzita eman digulako eta duten freskura mantendu dezaten. Jarraitzen du batze lanokin. Zelan ez ba? "Hasieran afizio, gero ofizio eta azkenean bizio" bihurtu zaiolako.

Estibalitz González

2003ko irailetik aurrera argitaratutako esamolde sorta:

Txaloen bila ez dabilenak, den-denak merezi ditu.
Ai, berakaztxu berakaztxu, zergaitxik urten dostazu hain txikitxu? Ni erein orduko bazalako San Martintxu!
Amentsak osatzeko erabilitako materiala ez da zaharkitzen.
Erlojua ez da gelditzen norbera firin-faran denbora galtzen egon arren.
Atzo jaio eta gaur hil, denbora arin dabil.
Hobe duk "Agur!" esatea "Joan hadi!" entzun behar izatea baino.
Apirileko lorie, urrie baiño hobie; maiatzekue, bapez baino hobie.
Atsegina da pertsona garrantzitsua izatea, baina garrantzitsuagoa da pertsona atsegina izatea.
Daukonaz konforme egoten dana baino aberatsagorik ez dago.
Gauza asko bizi eta erdiak gogoratzeak, ez du esan nahi bizi barik daudenik.
Denbora da, berari begira egonez gero, mantsoen mugitzen den gauza.
Merezi ez duten zenbatek edukiko dute nahibeste jateko eta zenbat goseak hiltzen!
Kandelerioz euri, laster udaberri; Kandelerioz aterri, negua ez da urruti.
Ondo bizitzeko militarren soldata, abadearen lana eta maisuaren oporrak.

OUTUMURO KAFETEGIA

- Kafe bereziak
- Aukera handia **TE** eta **INFUSIOETAN**
- Tarta bereziak

• Astelehenetik ostiralera 9etan zabaltzen dugu

Infreñu Taberna
Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

Lurak emandakoa lurrera doa, lurrari emandakoa guregan gelditzen da.
Oporrak dira ez edukitzea egitekorik eta egun osoa izatea berori egiteko.
Gizaki guztiok balio dugu zozertarako eta denerako balio duen gizakirik ez dago.
Osasunak balio handiegia dauka, sendagileen eskuetan lagatzeko bakarrik.
Mundua liburu bat da eta bidaiatzen ez dutenek orrialde bakarra irakurtzen dute.
Animaliek behar dutena desio dute eta gizakiek desio dutena behar dute.
Damutuko zara berba egiteaz, sekula santan ixilik egoteaz.
Zerbait lortu nahi baduzu, ezta eta astia erabili beharko dituzu.
Inoren bizimoduaren jakin-gosea ez da ona osasunarendako.
Gabon gaba ta Natibitate ase ta bete; San Esteban, lehen bezelan.
Gorak entzun zuen, mutuak esanda,itsuak ikusi zuela, soka baten gainan errena dantzan.
Kandelerio hotz, negua pasa eta poz; Kandelerio bero, negua dator gero.
Etxakanat astirik ezta hiltzeko bez! (presaka zihoan bati entzunda)
Zama astunenak arinduko dozuz eroapenagaz hartzen badozuz.

Gari gaineko txoriak, goserik ez.
Ezer ez dagoen etxean, berriketa gutxi.
On ein daigula janariak eta kalte askorik ez edariak.
Gogoko lekuan, aldaparik ez.

Zuzen ez dabilena, azkenerako oker.
Oizeko beliek, Oizera gure.
Zenbat eta gaixuago, okerrago.
Inork emotekue urrixe da.
Haserreak surik gabe erretzen ei dau.
Jan da lo, beti potolo.
Hartzeko pronto eta emateko tonto.
Lehenaako larrabehixek esaten ei eban: "Maietzaren erdi aldera arte gorde badaezpada arran bete lasto".
Berri txarrak beti zaldi azkarrean.
Txirtxillak kantua hasi arte, lekarik ez erein.
Atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu.
Atzera begiratu ezker ez dago aurrera egiterik.
Jakintsu uste izatea da, ezjakinaren akatsa.
Ez dago aspirinarik diru kalentura bajatzen dabenik.
Hasieran afizio, gero ofizio eta azkenean bizio.
Belar gaiztoak, zainak beti luze.
Zuzen ez dabilena, azkenerako oker.
Txin-txin hotsa non, sotana berton.
Ikasteko, liburua eskuan eta ikusteko, ibili munduan.
Alargunari, pasuan doiala, sasixak be urrutu.
Jakinmiña sekula osatzen ez dan gaitza.
Daukanak dauka eta eztaukanak baleuka.
Gurien, oillo-lurre esaten jako norberan jaixote lekuari.
Zaharrek eskapurik ez eta gaztiek ordu segururik ez.

A ze pare: abadea eta prailea!
Gauza bat da bizirik egotea eta beste bat bizi izatea.
Dakienak badaki. Ez dakienak baleki, orduantxe ederki!
San Juan, azkar etorri eta nekez joan.
Ezkongai ezkongai dirua badago jai, ez badago izorrai!
Hazi egiten gara erratzen garen bakoitzean.
Zahar bihurtzen gara ikasteari lagatzen diogunean.
Bururik ez daukanak txapel beharrik ez.
Diru erraza, erraz etorri eta erraz joan.
Etxe eskasean nagusi baino, etxe onean morroi hobe.
Alde itzela dago zeresana eta txarto esatearen artean.
Zertan harro, hartan herren.
Eguzkia nora, zapiak hara.
Fama, haizeak darama.
Ez da nahikue zuzenak izatie,
zuzenak itxurie emon bihar da.
Neurrian dago koska.
Osasuna eta bakie eta lapikue betie.
Gizaki umila, beti garaile.
Animuek erosten, deuketen diru dana enpliauko neuke.
Hanka sartuz ikasi dut nik, hanka sartzea zer den.

KAFETEGIA XAGUA
Zubiaurre kalea, 23 behea

mari asun
LORADENDA
Diputación, 9 - ERMUA - Tel. 943 174379

KIROL MEDIKUNTZA
indartu
ERA GUZTETAKO MUTUA
ETA ASEGURUEKIN
KONTZERTATUA

ERREHABILITAZIO ETA KONTSULTA ZENTRUA

- FISIOTERAPIA
- 3. ADINEKO MANTENIMENDUA
- ESFORTZU PROBAK
- KONTSULTA ETA ERREKONOSIMENDU MEDIKOAK
- ODOL ATERATZE ZENTROA, EGUN BEREAN ERANTZUNA JASOZ
- MASAJE TERAPEUTIKOA - KIROL MASAJEAK
- URGENTZIAK

Diputazio Etorbidea 8-10 48 260 ERMUA • Tel. 943 17 21 12 - 943 17 21 16
Faxa: 943 17 21 12 • e-maila: indartu@euskalnet.net